


bilbao **museoa**

# Rubens

Rubensen zirriborroak Baionako  
Bonnat-Helleu museoan



Eraikin zaharra  
**0 solairua**



Pedro Pablo Rubens (1577-1640) XVII. mendeko europar margolari nagusizat eta arte unibertsalaren historiako handienetakotzat hartua da, eta haren bertute aipagarrienetakoa da zirriborroak egiteko zuen maisutasuna. Hain zuzen ere, funtsezko jarduera da Rubesen sorkuntza prozesua ulertzeko, eta azpimarratzekoa, egin zituen zirriborroen kalitateagatik nahiz kuantitateagatik –bostehun ale inguru margotu zituen, bere ekoizpenaren ia herena–. Jarduera horrekin, gainera, eraldatu eta gainditu egin zuen aurretiko estudioaren kontzeptu tradizionala, haren arabera papera erabiltzen baitzen zirriborroetarako euskarri bakar gisa.

Rubensek heziketa zaindua, poliglota eta klasizista jaso zuen, eta horrek aukera eman zion gazte-gaztetatik aristokraziarekin harremana izateko. Italian Mantuako dukearen ganbera pintore gisa egindako egonaldian, Errenazimentuko maisuen obra ezagutu zuen. Espainian, trebetasun

aparta erakutsi zuen erretratu handietarako eta, gero, Anberesen, ordura arte ez bezalako ikusgarritasunaz landu zituen gai erlijiosoak. Ekoizpen oparoa izan zuen, marrazkilari eta kolorista gisa zuen gaitasun harrigarriari esker –bereziki trebea izan zen giza anatomia irudikatzen eta orotariko gaietan–, baina baita bere lantegi handian jardun zuten laguntzaile ugarien lankidetzari esker ere.

Flandestar margolariaren jarduera garrantzizko baina publikoarentzat ezezagun honen erakusgarri bikaina da zirriborro sorta hautatu hau. Emankortasun handiko garai batean landutako marrazkiak dira: Espainiako gortearen zerbitzuan jardun zuen garaikoak, hain zuzen. Horietako sei Torre de la Paradako dekorazioarekin lotuta daude, eta XVIII. mendearen erdialdera Espainian egon ziren, Infantadoko dukearen esku, beste berrogeita hamar bat zirriborroarekin batera. Bilduma hartatik erosi zituen Victor-Bernard Derrécagaix baionar ofizial eta esploratzaileak (1833-1915), Espainiatik igarotzean. Eta haren alargunak legatu modura eman zizkion Bonnat-Helleu museoari, 1921ean, Rubensek Oinuts Errealen monasterioko tapizetako baterako egindako beste zirriborro bat gehituta, Derrécagaixek Espainian eskuratua hura ere.



Paulus Pontius (Rubensen arabera)

## **Pedro Pablo Rubens**

Akuafortea paperean

Flandesko Barrokoko grabatzaile gailen eta oparoenetako bat zen Pontius, eta maiz lan egin zuen Van Dyck eta Rubensentzat. Hain zuzen ere, Van Dyckek Rubensi bere *Ikonoграфия*rako egindako erretratua du oinarri estampa honek. Irudi horrekin, bere maisuarenarekin, hasi zuen Van Dyckek artisten irudien sail hura, zeinetan agertzen baita Pontius bera ere. Van Dyckek 1632. eta 1635. urteen artean sortu bide zuen erretratua, eta, hala balitz, berrogeita hamar urte inguru lituzke Rubensek. Beheko aldeko idazkian aitoren semearen titulua aipatzen da; izan ere, Filipe IV.ak, zeina baitzen Rubensen obraren bildumagile handia, titulu hura eman zion margolariari 1624an.

Bilduma partikularra

## Torre de la Parada

1636an, Filipe IV.ak zabaltze lanak egin zituen, Juan Gómez de Mora arkitektoarekin, Madrilgo aldirietan zuen gotorleku txiki batean. Luis de Vega arkitektoarekin eraikitako jauregi hartako lanen emaitza da Torre de la Parada izenez ezaguna den ehiza pabiloia, zeinetarako eskatu baitzien erregeak margolan sorta handinahi bat zenbait artistari. Multzorik nagusia Rubensi eskatu zion: gai mitologikoko 60 obra. Filipe IV.aren anaia Fernando Austriakoa kardinal-infanteak egin zion eskaria urte hartan bertan, eta Ovidioren *Metamorfosiak* eta Herkulesen bizitza izan ziren obra haien inspirazio iturria. Margolariak zenbait ataletan banatu zuen zikloa, eta, atalek programa zehatz bati jarraitzen ez bazioten ere, haiek erakutsiko ziren espazioaren xedeak egiten zuen guztien arteko lotura; izan ere, ehizako eta aisiako eszenak agertzen ziren pintura guztietan. Konposizioak eta gaiak Rubensek berak asmatu zituen, eta formatu txikiko haritz oholen gainean margotu zituen zirriborroak, olio pinturaz;

gero, irudi haiek mihise handietara eraman zituzten berak –pertsonek arduratu zen 14 obra– eta hark kontratatutako beste margolari batzuek, tartean zirela Jacob Jordaens eta Jan Cossiers. Jakina da lanak 1638-1639rako amaituta zeudela, baina eraikina desagertu egin zen, koadro gehienekin batera, 1714an Ondorengotza Gerran gertatutako sute batean; hala, Rubensen zirriborroak bihurtu dira proiektu haren lekuko, hainbat bildumatan barreiatuta. Areto honetan ikusgai dauden seirek egikera indartsu eta sintetikoa dute, enkarguaren ezaugarriek baldintzatuta hein handi batean; izan ere, enkarguaren epeak eta bolumen handiak behartuta, artistak asmamen handiz aritu behar izan zuen konposizioen aberastasuna eta aniztasuna eta argitasun narratiboa ziurtatzeko. Inguru ongi zehaztuak eta pintura geruza oso meheen erabilera –inprimazioa bera ere ikusten da, maiz– maisuaren gaitasun tekniko apartaren erakusgarri dira.



## **Apolo eta Dafne**

c. 1636. Olioa oholean

Apolo Dafne ehiztariak maitemindu zen, Cupidok jaurtitako gezi batek jota. Hala, Dafneri jarraitu zion, desirak sututa, eta ia harrapatu zuen. Dafne gazteak, izuaren izuz, laguntza eskatu zion aitari, ibaietako jainkoari, eta aitak erramu bihurtu zuen, salbatzeko (Ovidio, *Metamorfosia*, I. liburua). Harrezkero, koroa gisa erramu hosto batzuk erabilia etsi behar izan zuen Apolok.

Konposizioaren ardatz nagusia markatzen duen lerro bertikala sail honetako beste zirriborro batzuetan ikusten diren askoren antzekoa da. Multzo honetako koadro gehienekin egin bezala, Rubensek beste artista bati azpikontratatu zion margolana: Theodoor van Thuldeni, kasu honetan (Prado Museoarena da koadroa).





## **Kupido eta Psike**

c. 1636. Olioa oholean

Kupido eta Psikeren istorio ospetsua II. mendeko idazle eta filosofo Apuleioren *Metamorfosia* eleberrian (*Urrezko astoa* izenez ere ezaguna) agertzen da. Psikek Kupidoren maitasuna galdu zuen, Cupido ohartu baitzen zelatan aritu zitzaiola –Psikeren kriseilutik isuritako olio irakinezko tanta batek esnatu zuen–. Rubensek aurreko unea irudikatu zuen, zehazki; Psike gaztea maitasunaren eta desiraren jainkoaren edertasun berdingabearekin liluratuta dagoen unea. Venus jeloskorrak jarritako amarruak gorabehera, bi maitaleek berriro bat egin zuten.

Irudiak inguratzen dituen pintura-geruza marroian opakutasun handiagoko eta gutxiagoko eremuak maisuki tartekatuz, espazioaren sakontasun sentsazioa sortzen laguntzen du Rubensek.



## **Eszila eta Glauko**

c. 1636. Olioa oholean

Glauko itsasoko jainkoaren eta hark Eszilarekiko zuen desiraren istorioa Ovidioren *Metamorfosian* kontatzen da (XIV. liburuan), Rubensek Torre de la Paradarako margotutako mito gehienak bezalaxe. Eszilaren maitasuna bereganatzeko, Zirze jainkosari laguntza eskatu zion Glaukok, baina, Zirze Glaukoz maiteminduta zegoenez, betikotu egin zuen haren samina.

Eskuinean, txakurrak ageri dira Eszilari erasoan, eta Eszila, besoak gora jasota. Gero, animalia bihurtu zen Eszila bera ere. Glauko dena ikusten ari da, izuak harturik, limurtzen saiatu zen emakumea galtzera baitoa.

Bayonne, musée Bonnat-Helleu



## **Herkules, purpura deskubritzen**

c. 1636. Olioa oholean

Julius Pollux greziarrak kontatzen du istorio hau *Onomasticon* lanean (I. liburua), II. mendean. Tiroko hondartza batean nagusiarekin paseoan dabilela, Herkulesen txakurrak molusku baten oskolari kosk egin zion, eta purpuraz zikindu zitzaizkion ezpainak. Horrela deskubritu zuen Herkulesek tindagai hura, Antzinaroan, bereziki erromatarren garaian, preziatuena. Tiroko hiria, gaur egungo Libanon, irudiaren atzealdean ageri da. Inguru hartako purpura bereziki aintzat hartua zen.

Pintura zurixka eta lur kolorekoa irudiaren ezkerreko aldean erortzen da, eta arkatez marrazturiko lerro beltz batez zedarritu du Rubensek eszena.

Bayonne, musée Bonnat-Helleu




## **Pan eta Siringa**

c. 1636. Olioa oholean

Arkadiako Pan jainko hipersexualak giza eta ahuntz ezaugarriak zituen. Ovidioren *Metamorfosia* obrako bertsoak (I. liburua) ditu irudi honek inspirazio iturri, eta, bertan, Pan ageri da Siringa ninfarengana hurbiltzen, lizun eta biolento, eta ninfa, Ladon ibaian sartzen, harengandik ihesi. Siringak ibaiko ninfei eskatu zien bihur zezatela kalamuzko kanabera, salbatzeko, baita haiek halaxe egin ere. Kanabera horiekin egin zuen Panek bere siringa (txirula).

Konposizioaren azpiko lerro bertikal ugariak (goiko ezkerreko ertzean ikusten dira hobekien) eszena margotu aurretik oholari tonua emateko erabilitako pintzel lodi batek utzitako arrastoak dira. Rubensek zirriborro askotan utzi zituen era horretako lerroak bistan.



## **Selene (edo Diana) eta Endimion**

c. 1636. Olioa oholean

Selene (Batzuetan Diana jainkosarekin identifikatuta) Ilargiaren greziar jainkosak Endimioni zioen maitasunak jeloskor jarri zuen Zeus. Gazte ederrarentzat betiereko gaztetasuna eskatu zion jainkosak Zeusi, baina, gaztetasuna eman ordez, betiko loarazi zuen hark. Safo poeta arkaikoak kontatu zuen istorioa, besteak beste. Saforen obran, ohikoa da rol maskulinoak eta femeninoak iraultzea, eta jainkosak saiatzea gizonak limurtzen edo behartzen.

Rubensek bizitasun berezia eman zion oholaren gainaldeari bere pintzelaren mugimendu arinaz. Jainkosaren keinuak, bestalde, sinesgarritasuna ematen dio haren saminari. Eskuinaldean, goian, margolariak euskarri gisa erabilitako hagatxoaren arrastoak ikusten dira: dirudienez, artean gutzit lehortu gabe zegoen pintura eremu horretan, eta lanabesak pintura markatu zuen.

Bayonne, musée Bonnat-Helleu



Paulus Pontius (Rubensen arabera)

## Filipe IV.a

Akuafortea paperean

Pardoko jauregitik hurbil Filipe II.aren enkarguz eraikitako Torre de la Parada egoitza –izatez, ehiza pabiloi bat– berritzeko eskaria egin zion Filipe IV.ak Juan Gómez de Mora arkitektoari. Espainiako Ondorengotza Gerran, 1710ean, sute batek eraikina suntsitu zuen, eta hura dekoratzen zuten pintura gehienak ere desagertu egin ziren. Haien artean zenbait egile ospetsuren obrak zeuden, Vicente Carducho y Velázquezenak esaterako, eta Karlos II.a hil zenean, 1700ean, egindako inbentarioari esker dugu haien berri. Rubensi eskatu zioten ziklo dekoratiboak gai mitologikoko 60 pintura biltzen zituen, artistak eginak 14, eta haren jatorrizko zirriborroetan oinarriturik beste artista batzuek margotuak gainerakoak.

Bilduma partikularra

## Descalzas Reales

Madrilgo Oinuts Errealen monasterioa erregetzako eta aristokraziako dama askoren egoitza izan da bere historian zehar, eta garrantzi handiko arte bilduma osatu zen, dama haien dohaintzei esker. Horien artean, aipatzekoa da, adibidez, Elisabet Klara Eugenia infantaren ekarpena. Filipe II.aren alaba eta Herbehereetako gobernari izan zen, eta, 1625. urtearen inguruan, Bruselan, Rubensi eskatu zion egiteko 20 tapiz Eukaristiaren garaipenaren gaiari buruz, hura harturik katolizismoaren dogma nagusizat. Haien zirriborroak dira margolariaren ekoizpeneko obra onenetakoak, eta, haietatik abiatuta, maisuaren laguntzaileek kartoia landu zituzten –tapizak sortzeko tarteko urratsa–. *Modelli* hauek, olio pinturaz ohol gainean margotuak, landuagoak dira Torre de la Paradakoak baino, baita haiek baino handiagoak ere. Areto honetan ikusgai den *Elias profeta, ogia eta ura aingeru baten eskutik jasotzen* obran, argi ikusten dira Barrokoko maisu handiaren bereizgarriak, hala nola pintzelkada aske eta segurua eta kolorearen gardentasuna.



## **Elias profeta, ogia eta ura aingeru baten eskutik jasotzen**

1625-1626. Olioa oholean

Rubensek bere ibilbidean diseinatutako lau tapiz sailtako baterako prestalan gisa margotu zuen zirriborro hau: Eukaristiaren sailerako, hain zuzen. Elisabet Klara Eugeniak egin zion enkargua, zeinarentzat lan egin baitzuen Rubensek gorteko margolari eta diplomazialari gisa. Multzoaren gaia Eukaristiaren misterioaren gorespena da, eta pieza honek, zehazki, aingeru batek Elias profetari jaten eta edaten eman zioneko Itun Zaharreko eszena du oinarri. Zenbait testu erlijiosotan, Eukaristiaren aitzinirudi gisa interpretatu da Bibliako pasarte hori (adibidez, Akinoko San Tomasen *Summa Theologica* testuan).

Zirriborro hau modelo gisa erabili zuten Rubensen laguntzaileek, tamaina handiko koadro bat egiteko (kartoiz), zeinetan oinarritu baitzuten tapizaren egileek beren obra. Tranpantoko modura zutabe batzuetatik zintzilikatutako tapiz modura irudikatuta dago eszena. Zutabeak Rubensen ondorengo artistaren batek berriro margotuta daude, agian, jatorrizko egileak ez zuelako haien forma nabarmendu.





Paulus Pontius (Rubensen arabera)

## **Elisabet Klara Eugenia, klaratar habituarekin**

Akuafortea paperean

Elisabet Valoiskoa ama hil zitzaienean, 1568an, Elisabet Klara Eugenia eta haren ahizpa, Katalina Mikaela, Joana Austriakoa izebaren babespean gelditu ziren, Madrilgo Oinuts Errealen monasterioan. Han bizi izan ziren 1598ra arte. Elisabet Klara Eugeniak gai eukaristiko 20 zirriborro eskatu zizkion 1625ean Rubensi, gerora tapiz bihurtu eta monasterioa apaintzeko, hara erretiratzeko asmoa baitzuen Herbehereetako gobernua bere gain izan zuen garaiaren ondoren. Ohol gainean margotutako multzo hau egilearen ekoizpeneko onenetakotzat hartua da, eta haren parte da *Elias profeta, ogia eta ura aingeru baten eskutik jasotzen*, Victor-Bernard Derrécagaixek erosi eta Bonnat-Helleu museoak legatu gisa eskuratua. Estampa hau Rubensek Elisabet Klara Eugenia Habsburgokoari 1625ean egindako erretratu batean oinarrituta dago; gaur egun, Pasadenako Norton Simon Museumen (Estatu Batuak) kontserbatzen da erretratua.

Bilduma partikularra

Arte Ederren Bilboko Museoa  
Museo de Bellas Artes de Bilbao